
KOMUNIKAZIO SAILA

Basque Audiovisual MIPTVn egongo da, apirilaren 4tik 7ra, Canneseko Palais des Festivals jauregian egingo den ikus-entzunezkoen nazioarteko azokarik handienera

Basque Audiovisualek euskal industriaren azken ekoizpenak eramango ditu Cannesera

- Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren (Eiken) lankidetzarekin batera, Etxepare Institutuak hartuko du aurten nazioartekotzearen aldeko euskal ikus-entzunezkoen erronkaren gidaritza.
- Basque Audiovisualek standa Riviera pabiloian egongo da, azokaren egoitza nagusian, eta 11 euskal enpresak parte hartuko dute.

Aurten, Basque Audiovisual MIPTV azokan egongo da, berriro ere. Ikus-entzunezko edukien eta eduki digitalen nazioarteko azoka hori Cannesen egiten da, eta munduko garrantzitsuenetakoa da, euskarri guztietarako entretenimendua sortzeko, koproduzitzeko, erosteko, saltzeko, finantzatzeko nahiz banatzeko. Euskal ikus-entzunezkoaren nazioarteko markak bosgarren aldiz parte hartuko du ekitaldi honetan, eta bere standa edukiko du Riviera pabiloian (R31.29 standa).

Basque Audiovisual markarekin honako euskal enpresa hauek joango dira Cannesera: **3Koma, Bainet, EiTB, Expressive, Mediabask, Moztu Filmak, My Jok, Orio Produkzioak eta Pausoka**. Horiez gainera, **Eriz Zapirain** errealizatzailea, **Vitoria-Gasteiz Film Office** erakundeko arduradunak, **Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko** zuzendaria eta **Itziar Mena Eiken** klusterreko zuzendaria izango dira bertan. Apirilaren 4tik 7ra egingo den ekitaldi horretan, euskal produktuak munduko banatzaile nagusienera ezagutarazteko aukera izango dute, baita sektoreko azken joerak ezagutzeko aukera ere.

Eikenen eta Etxepare Institutuaren arteko baterako ekimen horren bidez, euskal ikus-entzunezkoaren presentzia bermatuko da, nazioarteko erakustoki nagusian, eta enpresen merkataritza lana sustatuko da. Horren harira, azokan bertan egongo diren enpresez gain, Basque Audiovisualek standak 41 euskal enpresari buruzko informazio zuzena eskainiko du, horretarako egindako nazioarteko katalogoaren bidez. Halaber, informazio hori berriki eraberritu den eta Euskal Ikus-entzunezkoaren sareko katalogo gisa eratu den www.basqueaudiovisual.com helbidean egongo da eskuragarri.

Sektorearen eraldatzea

Antolatzaileen datuen arabera, 2011ko MIPTV azokak 107 herrialdetako 11.500 parte-hartzaile biltzea du xede. Helburu nagusia industriaren merkataritza alderdiari erraztasunak ematea eta hura sustatzea da; hain zuzen, 1.500 erakusle eta balizko 4.000 erosle erregistratu dira. Era berean, azokak iraungo duen 4 egunean, 45 hitzaldi eta lantegi egingo dira, eta munduko ikus-entzunezko industriaren arduradun nagusiek parte hartuko dute.

Aurten, ohiko jarduerak egiteaz gain, azokak arreta berezia jarriko du sektorearen eraldatzean eta eduki digitalen industriaren garapenean. Izan ere, "Konektatutako Sormenari" buruzko berariazko atal bat egongo da, eta, bertan, teknologia, telefono mugikorrak eta entretenimendua bateratzen dituzten produktu berriak aurkeztuko dira. Horrez gainera, 3Dko telebistari eta tresna "konektagarri" buruzko saioak ere egingo dira.

Besteak beste, Hans Vestberg Ericsson enpresako zuzendari nagusiak (irekierako hitzaldiaren arduradunak), Christian Hernández-Gallardo Facebook enpresako nazioarteko negozioen arduradunak, Claire Tavernier FremantleMedia enpresako lehendakari exekutiboak eta Luke Bradley-Jones BBC.com eta iPlayer zerbitzuetako zuzendari nagusiak emango dituzte hitzaldiak.

Informazio gehiagorako:

MBN Comunicación

Javier Palacios

Tel.: 94 435 63 30